

Iñaki Segurola “ 300 urte barru ez dut uste Euskarak bizirik iraungo duenik”

Eremu zabala hartzen du hizkuntzalaritzak. Horrek suposatzen duenari buruz hitz egiteko bildu dira hainbat pertsona Hizkuntzalari Euskaldunen I. Topaketetan. “Egungo ikerlerroak” izenburuarekin lagunduta, UEUK bere Udako ikastaroen 41. edizioan antolatu duen topaketa horretan Iñaki Segurola entzuteko aukera izan dugu hizlari gonbidatu bezala.

Itziar Aduriz eta Ruben Urizar antolatzaileek UEUren lana azpimarratu eta Hizkuntzalari Euskaldunen I. Topaketaren helburu nagusiak azaldu dituzte: Hizkuntzaren alorrean lan egiten duten euskal ikerlari eta profesionalak elkar ezagutzea, hizkuntzaren inguruko jardun eremuak edo iker lerroak ezagutzea eta euskal hizkuntzalarien arteko elkarlana sustatzea, hain zuzen ere. Ondoren Iñaki Segurola Euskal idazlea, filologoa eta hiztegitigileak “Igarri, ikertu, jakin?” hitzaldia eskaini du.

Saioari hasiera emateko, hizkuntzalaritzan zer ikertu beharko litzatekeenari buruz berak ez dakiela esan du, “horretarako zer jakin behar dugun jakin beharko genuke”. Ikerketei buruz erabakitzeko daudenak (boterea), diruaren baitan bizi dira eta hori hizkuntzalaritzan eta alor guztietan gertatzen den gauza bat da. Ikerlariei zer ikertu behar duten ez litzatekeela esan beharko adierazi du Segurolak, ikertzeko gogoak bultzatuta mugitu beharko lirakeke, bere ustez. Hitzaldiko izenburura bueltatuz, Iñakiren ustez hizkuntza oharkabeko jakintza moduan interpretatu izan da, hots, inkontzienteki barneratzen duguna. Eta ikerketa-prozesuan ere ezagutza horiek beraien lekua dutela aldarrikatu du, hau da, igartzen den hori. Ikertzea hori dela dio Segurolak, ikertze logikoa baino errespetuzko lotura bat bezala hartu behar dela, ikertuarekiko amodiozko elkarrizketa bat bezala.

Jarraian, ikerketari buruz eta Doktoretza tesiei buruz hitz egin digu hizkuntzalariak. Tesiek garai bateko soldaduskaren funtzioa betetzendutela esateaz gain (jendea nekaturik eta penaturik edukitzeko helburua duena), hauen bidez ikerlari purua ezjakin bat izatera kondenatuta dagoela esan du. Segurolarentzat ikerketa eta jakintza ez datoz bat. Horretaz gain, hitzaldiaren hasieran esan bezala, berak zer ikertu beharko litzatekeen ez dakiela errepikatu du, baina bai ikertu behar ez dena; adibidez, euskararen jatorria: “ez dago sekula iristerik hizkuntza familia baten jatorri absolutu batera. Hizkuntza bat bestea baino zaharragoa dela esateak ez dauka logikarik, hizkuntzan beti baitago jarraipen, kontinuazio bat”. Euskararen iraupena ere hartu du hizpide, eta bere ustez “300 urte barru penintsulako hizkuntza guztiak isildu egingo dira, Gaztelania, Portugesa eta Euskara. Ingelesa gailenduko da besteen gainetik eta agian Katalana izango da erdi bizirik gelditu daitekeena”.

Bukatzeko, “*belarrimotz jakintsuei*” kasu egitea ez dela komenigarria aipatu du: “Euskara zerbait maiuskuloa bezala hartu eta jende arruntaren gainetik jartzen dute, baina azken finean, hizkuntza jende arruntaren asmakizuna da”. Euskara batuak egin duen bide okerra ere azpimarratu du, hitz berriak asmatu, aldatu edota debekatzeko ohitura hori gaitzetsiz. Azkenera hurbilduz, ez dagoela ezer gehiago asmatzerik komentatu digu, “corpusera kondenatuta gaude”.

Javier Petralanda: “Geobiologiaren arabera, espazioaren harmonizazioa lortzeko, zeruko eta lur azpiko energiaren oreka behar da”

“Etxebizitzen zaharberritzea bioeraikuntza irizpideen arabera” ikastaroak bigarren eguna du UEUko Udako Ikastaroen baitan. Javier Petralanda, geobiologo eta ikerlariak “Geobiologia eta eraikita dauden espazioen harmonizazioa” izeneko hitzaldian, etxeen kokapen egokia eta hauen egoera aproposa lortzeko jarraitu beharreko irizpideetaz aritu da.

Geobiologiaren zein esparruz aritu zara zure hitzaldian?

Nire hitzaldian geobiologiaren ikuspegi orokor bat eman dut eta horretarako gure arbasoek etxe bat eraikitzeke erabiltzen zituzten sistemetan oinarritu naiz. Lehenbizi egiten zutena zen, ingurua behatu, ea satortegirik, inurritegirik edo landare arantzadunik bazegoen jakiteko. Horretan oinarriturik jakiten zuten ea lekua aproposa zen etxe bat eraikitzeke edo ez. Honen harira, aipagarria da pasa den mendearen hasiera aldera arte Euskal Herriko baserrien %80a ondo kokatuta zeudela eta %20 gaizki, gutxi gora-behera. Baina pasa den mendearen hasieran beste ikuspegi baten arabera hasi ziren baserriak eta etxebizitzak egiten eta ondorioz, portzentaje hori aldatu egin da: %80 gaizki daude eta %20a ondo. Horretaz aritu nahiz, gutxi gora behera.

Zein harreman dago espazioaren harmonizazioa eta etxebizitza bat bioeraikuntza bidez zaharberritzearen artean?

Hemen bi kontzeptu dauzkagu. Bata, kontzeptu estetikoak izango litzateke. Hau da, behin etxea eraikita dagoela nola apaindu aukeratzeko denean. Honetarako formak eta koloreak oso garrantzitsuak dira. Bestea, geobiologiaren ikuspuntua izango litzateke, eta honen arabera beste zentzu bat hartzen du espazioaren harmonizazioak. Espazioa harmonizatzeko bi indarren arteko oreka sortu beharra dago: zeruko energia eta lur azpiko energia. Hau mitologian ikusten dugu ere, Mari eta Majuren istorioaren bidez. Istorioren arabera, Mari eta Majuk amodioa egin ondoren, mundu honetan dauden izaki guztiak sortu zituzten. Honekin esan nahi dena da, energia bi horien oreka beharrezkoa dela.

Baina, energia bi horien oreka galdu egiten da, besteak beste, etxea lur azpiko ur laster, fisura, putzu edo faila baten gainean eraikita baldin badago. Ondorioz, edozein gaixotasun sortu daitezke, degeneratzaileak, reumak etab. Gainera, kasu askotan, sistema emozionalean ere eragina izan dezake etxearen kokapenak.

Hori kontutan hartzeari deitzen zaio bioeraikuntza bidez eraikitako etxebizitza bat izatea?

Ez, hori lehenengo pausua besterik ez da. Etxea egin baino lehen lekua aukeratu beharra dago. Horretarako geopatiarik ez duen leku bat topatu behar da. Hala ere, zerbait egongo balitz, arkitektoaren lana da lekura egokitzea.

Hortik aparte daude bioeraikuntzak dauzkan beste irizpide batzuk, esaterako, material naturalen erabilera, orientazioa, naturarekiko errespetua etab. Baina hasiera batean, beti egin behar da geobiologia azterketa bat, lekuarena eta lekuaren ezaugarriena. Horrela jakingo dugu leku bat aproposa edo ez den.

Zein leku, adibidez?

Ba, esate baterako, satortegi, inurritegi, arantzadun landare, asun multzo eta erlategiak dauden lekuak ez dira batera proposak.

Eta hiriari dagokionez?

Gertatzen dena da, gaur egun, irizpide hauek galdu egin direla eta zoritxarrez, gauzak edozein lekutan egiten dira. Eta honek badauzka nolabaiteko eragin fisiko batzuk: ionizazioa portzentajea handiagoa da, gama erradiazioa handiago edo txikiago izaten da etab. Honi medio artifizial batean bizi garela gehitzen badiogu (estresaturik, inguru toxiko batean etab.), esan daiteke osasunari ez diola mesederik egiten.

Zein iritzi duzu gaur egun gure etxeetan pilatzen ditugun gailuen inguruan (mikrouhin-labea, ordenagailuak, mugikorrak, router-ak, smartphone-ak etab.)? Ba al dago modurik, hauek gure osasunean kalte gutxiago egin dezaten?

Kasu horretan, interes mundu batean sartzen gara. Zientzialari independenteek antolatutako kongresu batean egindako esperimientuen arabera ondorioztatu zen 0,1 mikroW/zm-tik gorako mikrouhinek eragin biologikoa dutela. Eta esperientzia desberdinen arabera eta egin diren salaketen arabera, arazoa nahiko larria dela esan daiteke. Honek ez du esan nahi gu aurrerapenen aurka gaudenik. Gaur egun gauzak nola dauden ikusita, nire aholkua da horrelako gailuak gauez itzalita izatea. Gure gorputzak gauean melatonina eta serotonina hormonak sortzen dituzte (sistema immunitarioarekin zerikusi handia dutenak), baina guk, gauean, "ohian" elektroniko batean lo egiten badugu, gure burmuinak argitan gaudela interpretatzen du eta ez ditu beharrezko hormonak sortzen. Ondorioz, gure sistema immunitarioa makaldu egiten da. Teoria hau guztiz frogatuta dagoen arren, informazio hau ez da gizartera zabaltzen, aldizkari berezitzen bitartez ez bada.

Jabier Lertxundi: "Orain arte ezagutzen dugun lider kontzeptua aldatu egin beharko dugu"

Jabier Lertxundi eta Itzarri Consulting-eko kideak UEUk antolatutako *Lidergoa, motibazioa eta talde-lana: pertsonen eta erakundeen eraldaketarako teknikak* ikastaroan lidergoaren ideia aldatu eta guztiok liderrak garenaren ideia erakustera etorri dira. Goizetik gauerako aldaketarik ez, baina ikastaroan parte hartzen duen bat edo besteri autoestima igotzeko asmoa dute bi egun hauetan.

Bizitzako tresna garrantzitsuak izan daitezkeenak azaltzera etorri da Lertxundi. Norbanakoa bere buruarekin gustura sentitzen denean lana egiteko modua ere hobetuko duenaren ideia azaldu dute: "Autoestimuekin dago guztiz lotuta lidergoa. Adibidez, zu ez baldin bazara sentitzen gai lan bat egiteko, eta gainera laguntzarik ez baduzu jasotzen ingurukoengandik, zure autoestimua behera doa". Elkarren arteko lana eta norbanakoaren barnean lidergoa sentitzeko pausuak eskaini dituzte ere. Azken batean, norbanakoa lider izan daiteke alor batean edo bestean, eta hori erakutsi eta ustiatzen saiatu dira ikastaroan. Lan jakin batean liderra ez baldin bada norbait, inguruko laguntza jasotzea oso garrantzitsua da, eta hor sartzen da talde filosofia Lertxundiren ustez: "Orain arte ezagutzen dugun lider kontzeptua aldatu egin beharko dugu. Izan ere, norberak bere burua lider bezala ikusi behar du, bestela talde filosofia ez da garatuko. Orduan, bakoitzak ikusi behar du zertan nahi duzu lider izatea eta nolako gogo daukazu hori lortzeko. Autoestimu altua daukagunean, lanerako gogo gehiago izateaz gain, hobeto egiteko aukera asko daukagu, eta hori kanpora begira antzeman egiten da; lantaldeak hori nabaritzen duelako".

Ikastaro hau lan mundura bideratuta egon baldin bada ere, bizi pertsonalerako ere erabilgarri dela azaldu digu Jabier Lertxundik: "alaiago bizi eta zure nortasunarekin bat egiteko balio du". Lanpostuetan norbanakoarekin bat ez datozen egoerak edo funtzioak bete behar izaten dira,



udako
euskal unibertsitatea

eta egoera horietan, jarrera postiboarekin aurre egin, laguntza eskatu eta egoerari aurre egiteko gomendioa luzatu du Lertxundik: “honek, bizitzari modu positiboan eragiten dio zuzenean ere”.

Gaur egungo krisi garaia momentu interesgarri moduan azaldu du Jabier Lertxundik. Izan ere, “proiektu berritzaileak” egiteko momentu bezala ikusten du. Dirua alde batera utzi eta “garapen pertsonala eta profesionala” gauzatzeko momentua. Aipatutako autoestima izanez gero, konfiantza izango du pertsonak eta horrek bizitza poztuko dio: “agian ditu gutxiagorekin baina, zoriontsuago izango da”.

Norberaren buruan konfidantza lantzeko, **Ennegrama** sistema jarri dute martxan: “aitzindariak gara Ennegrama teknika lan mundura modu honetan ekarri dugunak, pertsona “askatzeko” helburuarekin”. Ennegrama sistemaren bitartez eta bakoitzaren buruarekiko jarrera autokritikoa izanez, norberaren burua ezagutzeko “metologia oso indartsua” da. Ennegrama sistema bizitzako esparru askotara bideratutako lantresna da, hala nola, osasungintzan psikologia nahiz psikiatria sailean erabiltzen da. Lan munduarekin lotzen diren ennegramak pertsonalitate testak bezalakoak dira, bakoitzaren perfil psikologikoa ezagutuz, lanpostu batera edo bestera bideratzeko. Baina, Jabier Lertxundiren eta bere kideak erabilera horretatik irten eta bakoitzak bere burua ezagutu eta liderra izateko prestatu dute sistema.

Gaur arratsaldean eskainiko duen hitzaldian, krisia gainditzeko proiektu eraldatzaileen garrantzia azalduko du. Ikuspuntu baikor batetik momentu batzuk “gogorak” izan daitezkeela pentsatuta proiektu berriak aurrera eramatea beharrezkoa dela azpimarratuko du Lertxundik: “Agian langabezia egongo zara tarte batean baina zure buruan eta zure proiektuan sinisten baduzu, aurrera aterako da, kosta ala kosta”. Ikastarora jende gaztea gerturatu zaie eta Lertxundik ahalera handiko jendea dela uste du, proiektu eraberritzaileak gauzatu dezaketanak.

BIHARKO AGENDA 2013ko Uztailaren 5a ostirala

“Weka, ikasketa automatikorako tresna: datuetatik erabakietara”

9:00-14:00

-Gaiak:

Datu meatzaritzari sarrera

Datuen prozesaketa eta ikuskatzea.

Ikasketa automatikoa; sailkapena eta taldekatzea eta haien ebaluazioa

Weka erabiliz esperimendu zamatsuak egiteko aukera

-Irakaslea:

Txus Perez de la Fuente. Informatikan doktorea, Ikasketa automatikoan aditua, UPV/EHUko irakaslea eta UEUko kidea.

“Etxebizitzen zaharberritzea bioeraikuntza irizpideen arabera”

09:00-10:00

Eraginkortasun energetikoa, tresnen erabilera praktikoa

Irakasleak: Inhar Agirrezabal Saenz de Santamaria. IEB-UDL-IBN Bioeraikuntza Masterra,

EKIANeko kide. UEUKidea.

Ekaitz Uribe Rus. Arkitektoa, bioeraikuntzan aditua, EKIANeko kide.

10:00-11:15

Uraren kontsumoaz, “erregeen pare bizi gara” monologoa.

Irakaslea: Iam Agorria Ariznabarreta. Egur Garden proiektu bideratzailea.

11:30- 13:30

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org



udako
euskal unibertsitatea

Iritzi trukaketa kolektiboa monologoaren harira.

Irakaslea: Inhar Agirrezabal Saenz de Santamaria. IEB-UDL-IBN

Bioeraikuntza Masterra, EKIANeko kide. UEUKidea.

15:00-18:00

Irteera: zaharberitze lan batera bisita.

Irakaslea: Ekaitz Uribe Rus. Arkitektoa, bioeraikuntzan aditua, EKIANeko kide.

Ikastaroak jarraitzeko:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365>

[#UI41](#)

**Informazio gehiago eta matrikula:
www.ueu.org**

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org